



❖ HERNANI'N MUSIK

Poesia, txistua, txalaparta, akordeoia... eskaintza zabala ekainera bitartean

Bernardo Atxagak eta Jabier Muguruzak eskainiko dute aurreneko emanaldia datorren astean. Poesia eta musika uztartuko dituzte, entzuleak «paradisura» eramateko asmoarekin. Sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai.

AURRENEKO edizioko arrakastaren ondoren, Hernani'n Musik ekimena berriz ere martxan da. Atzo aurkeztu zuten Biterin, eta bigarren edizio honetan hernaniarrek musikarekin nahi adina asetzeko aukera izango dute. Estilo guztietako kontzertuak antolatu dituzte oraingo honetan ere, musika, instrumentu eta estilo ezberdinak uztartuko dituztenak.

Poesia eta musikarekin, paradisura

Aurreneko kontzertuan, poesia eta musikak bat egingo dute. Bernardo Atxaga euskal poeta haundia ariko da narrazio lanetan, eta doinua



Hernani'n Musikeko aurkezpena, atzo Biterin.

Jabier Muguruzak jarriko du. Muguruzak atzo prentsaurrean azaldu zuenez, gastronomia oinarri hartu eta entzulea paradisura bideratuko dute kontzertuan.

Emanaldia datorren ostira-lean, hilaren 25ean izango da Biterin, eta sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai.

Eskaintza zabala, ekainera arte

Mendizabal eta Zabalaen txistu emanaldia, Hernasax eta gonbidatuen *Concerto Grossoa*, akordeoi topaketa eta Musika Bandaren kontzertuak dira, besteak beste, ekainera bitartean ikusi eta entzuteko eskainiko dituztenak. ||

❖ DOKUMENTALA 'El Problema' dokumentala gaur, Saharari buruz

Mendebaldeko Saharako egoerari buruz hitz egingo du *El Problema* dokumentalak, eta gaur emango dute, Biterin, 19:00etatik aurrera. Jordi Ferrer zuzendaria hitz egingo du Biterin, sari asko jaso dituen dokumental honi buruz. ||

❖ KARABI

Barrikotea gaur, Karobi elkartean

Karobi elkartean festa eguna dute gaur, urteroko barrikotea egingo baitute. Bakailo tortila, entrekota, gazta, in-txaurrek, menbrilloa eta kafea dituzte menuan, eta 65 bat lagun, dena jateko. Horrez gain, zuzendaritzak gogorarazi du, Mus Txapelketako izenematea zabalik dagoela, otsailaren 28ra bitarte. ||

❖ PALESTINA

Ayman Qwaider, gaur Hernanin

Goizean institutuan eta arratsaldean Kontrakantxan, Palestina eta Gazako egoerari buruz hitz egingo du gaur, Ayman Qwaider 24 urteko palestinarra. *Rumbo a Gaza* mugimen-
duak antolatu ditu. ||

❖ AAM

Kontzentrazioa gaur Zinkoeneako errotondan

Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera lemapena kontzentrazioa deitu du Hernaniko AAMk Zinkoenean. Errotondan egingo dute, arratsaldeko 20:00etan; azaldu dutenez «gure senideen eskubideak aldarrikatzeko kalera ateratzera behartuak gaude, eta ostira-lero bezala, hala jarraituko dugu egingen». ||

❖ BERDINTASUN KONTSEILUA

Jabetze Eskolak, martxotik ekainera

Apuntatzeko azken eguna: otsailak 21. Lekua: Berdintasun Arloa, Sandiusterri. 943 33 70 17

JABETZE Eskolak izeneko tailerrak edo ikastaroak antolatu ditu Udal Berdintasun Sailak, martxoan hasi eta ekaina bitartean. 6 ikastaro izango dira, batzuk luzeagoak eta besteak motzagoak, eta helburu bat dute: emakumeak konturatzea, bere eskubide, gaitasun eta ahalmenak zein diren, eta horiek aldarrikatu eta praktikan jartzen laguntzea.

6 ikastaro, era guztietakoak
Guztira, sei ikastaro izango

dira: *Literatura eta emakumeak*, *2.0.Feminismoa*, *Eraginkortasunez komunikatzen ikasi*, *Umorez gozatu!*, *Mugimendua tailerra*, eta *Emakumeak eta sexua*.

Jabetze Eskolak egiten 2006an hasi zen Hernani beste hiru herrirekin batera: Arrasate, Eibar eta Azpeitia. Orain arte, 28 ikastaro egin dira, eta 207 ikaslek parte hartu dute.

Udalak 30 euro bueltatuko dizkie, %80ko asistentzia duten ikasleei. ||

JABETZE ESKOLAK

Literatura eta emakumeak

Mertxe Tranche. Erderaz. Martxoaren 2an hasiko da. Bi astean behin, asteazkenetan, 18:30-20:30etara. 42 euro.

2.0. Feminismoa

June Fernandez. Euskeraz. Martxoaren 7an hasiko da. Astelehenetan, 18:00-20:00etara. 42 euro.

Eraginkortasunez komunikatzen ikasi

Pepa Boj6. Erderaz. Martxoaren 3an hasiko da. Ostegunetan, 18:00-20:00etara. 56 euro.

Umorez gozatu!

Virginia Imaz. Erderaz. Apirilaren 9an eta 10ean. 09:00-14:00 / 15:30-19:30. 48 euro.

Mugimendua tailerra

Ana Revuelta eta Maider Urrutia. Euskeraz. Maiatzaren 6an eta 7an. 6an: 17:00-20:00etara. 7an: 10:00-14:00 / 16:00-20:00etara. 41 euro.

Emakumeak eta sexua

Kotte Susperregi. Euskeraz. Maiatzaren 20an eta 21ean. 20an: 16:00-20:00. 21ean: 10:00-14:00 / 16:00-20:00. 42 euro.

Keunka®
MUEBLE RUSTICO

OUTLET EXPOSIZIO BERRIA

TRANSPORTATZEA
ZATOK II

ZINKO ENEA
HERNANI
CAMPO
FLUTBOL
ZUBI
GASOLERIA
PARABEL
ASTIGARRAGA
DONOSTIA

ORDUTEGIA:
ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
09:00-13:00
15:30-19:00

EZ UTZI AUKERA PASATZEN !!

**MUNDU GUZTIKO ALTZARIAK
DENA KOSTU PREZIOAN !!**

**ALTZARIAK ETA ARGITARIAK,
AURREKO DENBORALDIETAKO "STOCK"-a**

OUTLET !! Pol.Ind. ZUBIONDO - NAVE 4B-1 (20120, HERNANI). Tel: 943 33 10 81 **OUTLET !!**

IGANDE EGUERDITAN
ERE IREKITA

IPARRAGIRRE
TOLARE SAGARDOTEGIA

WWW.IPARRAGIRRE.COM
osiñaga auzoa 10, HERNANI 943 550328

☎ **TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aguado** ASTIGARRAGA - Nagusia, 21 - 943 550327 ● **Gauetz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Tenperaturak igo egingo dira gaur, eta eguzkiak lekua hartuko du goietan. Arratsaldetik aurrera, lainotu eta euria egin dezake. Min.6° / Max.14°
BIHAR Giro eurtsua izango dugu bihar. Egun guztian lainotuta izango ditugu goiak, eta euri-jasa haundirik ez bada ere, etengabe ariko du, batez ere goizean. Min.10° / Max.15°
(euskaltel)

❖ MUSIKA ESKOLA - ANDOAINGO 6. PIANO JAIALDIA

Hernaniko 35 ikasle, Andoaingo piano jaialdian

Urtero antolatzen duten piano jaialdian 872 musikari gazte izango dira aurten, 77 eskoletakoak, larunbat eta igandean, Bastero Kulturgunean.

HERNANIKO Musika Eskola 35 ikasle, 35 pianojole, Andoaingo piano jaialdian izango dira aste-buruan, Andoaingo piano jaialdi ezagunean. 6-18 urte bitarteko ikasleak izango dira bertan, Hego Euskal Herriko etorritakoak, eta 77

musika eskoletatik. 872 ikasle guztira, eta 300 pieza inguru joko dituzte. Jaialdi eta festa haundia izaten da, eta sariketa egiten dute, hiru mailatan bereizita, adinaren arabera: 11 urte arte, 14 urte arte, eta 18 urte arte.

Andoaingo Udalak eta SEIASLE taldeak antolatu dute jaialdia (Arantza Alberdi, Tere Laspiur, Isabel Laspiur, Miryam Ulanga, Txitxu Castro eta Audra Almanaityte). Basteron izango da, bihar eta etzi. II

🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Hernaniarrek badakite PSE-EE non dagoen

Udaletxeetako eta Diputazioako hauteskundeak inguratzen ari dira, eta Andoni Amonarraiz jauna, EAJko Hernaniko Udal zinegotzia, urduri jartzen hasia da.

Andoni Amonarraiz jaunak ez du egia esaten, sozialistek Atez Atekoaren aurrean dugun postura zein den azaltzen duenean. Amonarraiz jauna, Hernaniko sozialistok beti hitz egin izan dugu hondakinak biltzeko sistema honen kontra, eta bestela nahikoa duzu errepa-

satzea, azken legegintzaldi honetako aktak, edo egunkari edo herri-aldizkarietan atera diren prentsa oharak.

Nondik-nora galdetzen diguzu prentsan, ea non gauden? Kontrako botua eman genion, Mankomunitateak eta Udalak orain gutxi sinatu duten hitzarmenari, arrazoi batzuk direla medio: Hernaniren interesen kontrakoa da, ez du lagunduko judizialki Atez Atekoa kentzearen bidean, eta abar... eta halaxe esan dugu, argi eta garbi.

Noski, Amonarraiz jaunak beste arazo bat dauka, eta honakoa da: hauteskun-

deetan, Hernanin alderdi politiko asko ditu bere eremu berean, boto nazionalisten bila lehiatuko zaizkionak, eta kezkatuta dago. Ez zaitez saiatu Hernaniko PSE-EEko botanteak nahasten.

Sozialistak bigarren indar politikoa gara Hernanin, orain dela urte dezentetatik, eta gure esku badago, Atez Atekoa kendu egingo dugu. Eta horretarako, garaia iristen denean, espero dugu zure laguntza izango dugula.

Pablo Peñacoba Álamo
Hernaniko PSE-EEko
arduraduna

(*Erredakzioan euskeratua)

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Katuak oparitzen dira. Bata Persa beltza, hemea, 5 urte eta bestea txuria, arra, 3 urte. (esterilizatuak). Deitu: 637 108 588.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 638 389 594 (17:00etatik aurrera).

Emakume arduratsuak umeak edo adineko pertsonak zainduko lituzke. Baita garbiketa edo etxeko lanak ere (interna/externa). Deitu: 626 751 482 / 943 554 242.

Gela alokagai Kale Nagusian. Sukalde eskubidearekin. Hilean 300€ + gastuak (gasa, ura...) Deitu: 659 363 944 (Agustin)

Pisu ederra salgai Latsunbe Berrin. Sukaldea, egongela, 3 gela eta 2 komun. Egoera onean. Trastelekuarekin eta garaje itxiarekin: 360.000 euro. Tel: 600039938

Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257

Pisua salgai Latsunbe-berrin. Behe planta. 61m2. Sukaldea, saloia, 2 gela eta komuna. Terraza (25m2) eta lorategia (52m2). Garajea ere aukeran. Deitu: 678 740 750

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

ENARA GOIKOETXEA. Terapija energetikoak, Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziki eta pertsonalizatuak. Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

TRIPA BETE NAHI?

sabemos castellano

taberna triponzi

PINTXOKAK, BAZKIAK, ENTZALADAK, PLATER, BONBINATUTAK

ZATOZ DASTATZERAK!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† GREGORIO ARROSPIDE REGUILLAGA

JAUNA

Atzo hil zen, 76 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -



Emaztea: M^a Carmen Lasarte; seme-alabak: Joxan eta Izaskun Etxezarreta, Eva eta Gonzalo Bajo, Iñaki eta Monika Rozas; bilobak: Nahia, Aitor, Ane eta Alain; anaia eta ezkon anai-arrebak: Ignacio (+), Josefa Ignacia, Hilario(+), Joaquina (+), Josefa, Juan (+), Maria, Martin (+), Juanita eta Dionisio; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2011ko otsailaren 18an

Helbidea: Larramendi kalea, 9
OHARRAK: Gorputza Errekaldeko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da, gaur, goizeko 11:45ak arte.

GREGORIO ARROSPIDE REGUILLAGA

*Zure oroimenak
indartzen gaitu*



MURUA-URDANGARIN SENDIA

Hernanin, 2011ko otsailaren 18an

† HERIBERTO MARTINEZ LUJAMBIO

"OLI"

JAUNA

Herenegun hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -



Emaztea: Manoli Zumeta; seme-alabak: Iñigo, Amaia eta Oidui; anai-arrebak: Mertxe eta Javier, Fernanda eta Miguel Angel, Luisito eta Mila; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2011ko otsailaren 18an

Helbidea: Antziola, 74 - 2A
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 10:00ak arte.

HERIBERTO MARTINEZ LUJAMBIO

*Besarkada bero bat
familiarrentzat*



HERNANIKO TABERNARIK

Hernanin, 2011ko otsailaren 18an

HERIBERTO MARTINEZ LUJAMBIO

Besarkada haundi bat Iñigo



IÑIGOREN KOADRILAKOAK

Hernanin, 2011ko otsailaren 18an